



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Joxan Goikoetxeak ganbera formatuan estreinatuko du *Hesia urraturik* oratorioa, Xabier Lete handiaren figura, pentsamendu eta obrari eskainia

- Ikuskizuna Arriaga Antzokiko foyerrean izango da datorren astelehenean, azaroaren 14an, eta Goikoetxeak berak hartuko du parte, Landarbaso Abesbatzak, Beñat Egiarte tenorrak eta Klara Mendizabal sopranoak lagunduta.

Bilbo, 2022ko azaroaren 8a. - Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako "Literatura eta Musika Euskaraz" zikloak beste hitzordu bat eskainiko du Arriagako foyerrean datorren astelehenean, azaroaren 14an, 19:30etik aurrera. Emanaldi oso berezia da, **Joxan Goikoetxea** musikariak sustatua eta **Xabier Lete** handiaren figura gogoratzen duena.

Gogoratu beharra dago Arriaga Antzokian egin zuela Xabier Lete poetak bere azken agerraldi publikoetako bat. 2010ean izan zen, *Egunsentiaren esku izoztuak* liburua aurkezteko biraren amaierako ekitaldi gisa, Joxan Goikoetxea bera lagun zuela. Orain, Leteren heriotzaren 10. urteurrena dela eta, ***Hesia urraturik*** estreinatu eta argitaratu du Goikoetxeak. Alegoria moduko oratorio sinfoniko-korala da, Leteren zenbait testu eta melodiaren hautaketa berezia.

Hamahiru zati ditu oratorioak, 65 bat minutu irauten du, eta honetara bultzatzen gaitu: bere kezkek eta zalantza existentzialistak hain sakonki adierazten asmatu zuen artista handi haren pentsaera eta imaginario filosofiko-estetikoa gogoratzera eta aztertzerara (grina, fedea, aberria, nostalgia, maitasuna, elkartasuna, berradiskidetzea, erredentzioa, itxaropena...).

Oraingoan ganbera-formatuan, «Literatura eta musika euskaraz» ziklora itzuliko da Goikoetxea, obraren egokitzapen berezi hau eskaintzera. Ziklo haren barruan egin zen, hain zuzen ere, Arriagako errezitaldi historiko hura. Ibilbide luzea eta bikaina duen eta proiektu hau gauzatzeko funtsezkoa izan den **Landarbaso Abesbatza** —Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean— izango du lagun Goikoetxeak. **Beñat Egiarte** tenor solistak, **Klara Mendizabal** sopranoak eta Xabier de Felipe biolin-jotzaileak osatzen dute bertsio berria interpretatuko duen talde aparta.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus